

Hizkuntza ohiturak bikoteetan

Gaztelaniatik euskararako abentura

Guztiek ezaugarri bera dute: lehen beraien arteko harremana erabat edo nagusiki gaztelaniaz zen, eta aldaketa baten ondoren harremana erabat edo nagusiki euskaraz izatera pasa da.

EAEko 27 bikoteren kasuak ikertu dituzte, beraiekin elkarriketak eginez. Eusko Jaurlaritzako aurreko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bazuen ildo bat, familia transmisioaren testuinguruan, hizkuntza ohituren aldaketaren fenomenoaz aztertzeko. Hari horri tiraka Soziolinguistika Klusterrak hizkuntza ohitura aldatu duten bikoteak bilatu eta aztertu ditu, Buruntzaldeko (Gipuzkoa) familia bidezko transmisioa indartzeko egitasmoaren Koordinazio Batzordearen laguntzaz. 2008an egindako ikerketaren ondorio nagusiak daude ondoko orrietan eta baita pare bat bikoteren esperientzia ere.

ONINTZA IRURETA

Bego Macias eta Natxo Urkijo audioarrek gaztelaniaz ezagutu zuten elkar.



Bikote bakoitzak bere prozesua izan du hizkuntza aldaketan, ezaugarri propioekin, baina badira hainbat gako bikote batean baino gehiagotan errepikatu direnak. Bi orriotan, Soziolinguistika Klusterrak ondorioztatutako gako horietako batzuk jaso ditugu; batetik gako orokorrak, bestetik hizkuntza aldaketan izan dituzten zailtasunak, eta azkenik, bikote harremanean euskara mantentzeko erabilitako estrategiak.

GAKO OROKORRAK

Aldaketa handiak, motibo handiak

Bikote harremanean hizkuntza aldatzeak norbere bizitzaren parte garrantzitsu bat aldatzea suposatzen du. Eta parte garrantzitsu hori aldatzeko arrazoi garrantzitsu bat egoten da tartean.

Lorpenak azpimarratzen dituzte zailtasunak baino gehiago

Askotan "zailtasun" gisa aipatu ohi diren kontu asko (ikasi bitarteko ezerosotasunak, akatsak egitea...), "suposatutzat" ematen dira bikote hauen kontakizun gehienetan, eta aldiz, "lorpenetatik" hitz egiten da gehiago.

Bolada batean, lehentasuna euskarari, ohitura finkatu arte

Bikote askoren aipuetan ikusten da bolada batean beren egunerokoaren "energia" zati handi bat aldatuta-prozesu honi dedikatu diotela, bolada batez gaia "lehentasun"tzat hartu dutela.

Erabilera etorri da erabiltzetik

Bietako batek edo biek gutxi zekiten bikoteetan, behin oinarritzko gaitasun batetik aurrera, ez da gertatu lehenik gaitasun "on" bat eskuratzea eta gero bikotean hitz egiten hasia.

Arraro eta zail, baina egiten hasitakoan... uste baino errazago

Bikote harremana hasterako euskarazko gaitasuna biek izan, baina erdarazko harremana finkatu duten bikoteetan, esan genezake: a) aldatu aurretik ematen du oso zaila/gogorra izango dela, b) aldaketaren

hasieran ere hala da (bolada batean), baina c) behin praktikan aldatzen hasita, uste baino errazagoa egiten da.

Prozesuaren zaintza

Aldaketa-prozesu hauen deskribapenean askotan agertzen da zaintza izendatu dezakegun zerbait. Erdara beti eskura, toki guztietan dagoenez, bikote hauek garatu dituzte estrategiak "euskararen mantentzeko" edota "euskarara itzultzeko" elkarrizketetan.

Seme-alabetatik bikotera, nekez

Beraien ohitura oso nabarmen edo erabat aldatu duten bikoteetan, seme-alabak jaio aurretik aldatu dute beraien arteko hizkuntza, edo aldatzen hasi behintzat. Hipotesi gisa formulatzen dugu: behin seme-alabak jaiota, bikoteko harreman-hizkuntza aldatzea jaio aurretik baino askoz zailagoa da.

Ez dute aldatu seme-alabengatik (bakarrik), baina ohitura finkatzen lagundu dute

Bikote hauetako askotan, beraien arteko euskarazko ohitura finkatzen eta indartzen lagundu du seme-alabak izateak, hauekin harremana erabat euskaraz izan baitute gehienek.

Prozesu bakoitza, mundu bat

Bikote batzuen kasuan, biharko harremana euskaraz izatea "beti" irudikatu izan duten zerbait da, beste batzuetan aldiz helburu horretatik oso urrun zeuden hasieran. Harreman bakoitzaren bilakaera konplexua da, eta hainbat gertaerek baldintzatzen dute prozesua.



Jaso euskal kultura egunero 10 albistetan
Harpidetza doan e-postaz
Dagoeneko 2.500 harpidedun

hari@
euskal kulturaren buletinak 10 urte

argia.com

ZAILTASUNAK

Nahi bezala espresatzeko mugak:

Zailtasun hau elkarrizketa gehienetan aipatzen da, modu batean edo bestean: zerbait esan bai, baina ez "nahi duzun bezala", xehetasun gutxiarekin, nahi zenukeen "txispa"rik gabe, freskotasun faltarekin...

Gaztelaniarako joera: behin eta berriz "ateratzen" zaizu

Hau ere bikote askoren kontakizunean ageri da. Euskara erabiltzen hasi, ongi moldatu, eta hala ere, egoera askotan "gaztelania atera" tze hori. "Berezko" joera horri aurre egiteak, une batzuetan nekea ere sortzen die, etengabe pentsatzeak eta hizkuntzak nahasten ibiltzeak batzuetan dakarren buruko neke sentsazioa.

Aldatzen zailenak diren egoerak

Ondorengo hauek dira nagusienak:

- Eztabaidak eta haserrealdiak. Zerrendatu ditugunetan, zalantzarik gabe hau da bikote guztietan gehien errepikatzen dena. Bikote batzuen kasuan, euskara beraien harreman-hizkuntza "normala" duela 20-30 urtetik izan arren, jarraitzen dute elkarrizketetan erdera (ere) erabiltzen.
- "Paper garrantzitsuak" egiteko: bankuko gauzak, lege kontuak...

- Barru-barrutik sentimenduak ateratzeko.
- Esaldi eginak, erderazko espresioak.
- Bolada estresatuak eta agobiatuak.
- Pertsona batzuekin aldatzea zailagoa da.

Arraro sentitzea

Badira hainbat une hizkuntza aldatuta "arraro" sentitzen zarena. Gehiago aipatzen dute hau, esaterako, elkar ezagutzerako euskarazko gaitasuna bazuten bikoteetan, "elkarrekin ikasten" joan direnetan baino. Bikote batzuek deskribatzen dute izan dutela bolada bat non bazirudien bikotekidea "beste pertsona bat" zela.

Zuzendu bai, baina... noraino?

"Irakaslea" etxean izatea eroso izan daiteke, baina hitz egiten duzun aldiro norbait ondoan "zuzentzen" egotea... nekagarria ere bai! Aipatzen duten zailtasun bat da "zuzentze" edo "erakuste" horri uneoro tamaina bilatzen jakitea.

Umeen ikasketa azkarra

Beren motibazioan zailtasun gisa deskribatzen dute gutxi batzuek umeen ikasteko "abiadura".

ESTRATEGIAK

Dosifikatu, errazetik zailera

Bi kideak euskaldun zaharrak ez ziren kasuetan –aztertutako gehienak–, beti egon da ikasketa prozesu bat tartean bilakaera hauetan. Hala izan denean, euskarazko erabilpena dosifikatzen joatea askok aipatu dute: errazena egin zaizkien egoeretatik hasi dira, zailak zaiena momentuz gaztelaniaz eginez eta progresiboki gehitzen joanaz.

Nekatutakoan edo "agobiatutakoan", gaztelania ere erabili

Hau ere asko aipatzen da. Mila egoera suertatzen dira non espresio bat ez zaigun ateratzen, edo pentsatu beharrik nekatzen gaituen, edo nahi baino tentsuago gauden... Bikote askotan deskribatzen da jarrera malgu eta aldi berean konstante moduko bat, horrela labur daitekeena: euskara gero eta gehiago erabiliko dugu, ahal dugun guztietarako, baina tartean behar dugun uneetan gaztelania erabiltzeari uko egin gabe.

Une batean pausoa eman

Bikote batzuetan –normalean lehendik euskarazko gaitasuna bazutenak– deskribatzen da une bat non bikoteak zirt edo zart egitea erabaki duen: nahikoa da, hemendik aurrera euskaraz egingo dugu. Pauso horrekin, bide eman diote beren baitan zuten nahi bati.

Bat bestearen irakasle

Oso orokorra da hau ere. Bolada batean ez bada bestean, bikote hauetan ia guztietan bat bestearen "irakasle" izan da. Kasu guztietan, ordea, lortu dute ikaste-irakasle prozesu hori elkarren arteko eguneroko harremanean ongi txertatzea.

Euskaraz dakitenei, euskaraz

Aztertutako bikotekideetako askok, bikote mailan ezezik, beren inguruko beste pertsona askorekin ere euskarazko harremanak eratu dituzte, edota lehen gaztelaniazkoak zituztenak euskarara aldatu.

Seme-alabekin erabat euskaraz

Bikote hauetako askotan, beraien arteko euskarazko ohitura finkatzen lagundu du seme-alabak izateak. Askok ahalegin berezia egin dute ikasteko seme-alabak jaiotzerako gaitasun maila on bat izateko, eta beste askoren kasuan berriz, bikoteko euskarazko harremana indartu egin du seme-alabak tartean izateak, normalean haiekin erabat egin baitute guztiek euskaraz.

Ikerketaren laburpena www.udaltop.com webgunean dago *Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa* izenburupean.

Alfonso Ayesa eta Nagore Olazabal

«Zestoan beharrean Murillon biziko bagina euskaraz egingo al genuke?»

Nagore Olazabalek (1978) eta Alfonso Ayesak (1976) umetatik eza gutzen dute elkar. Olazabal udaratan joaten zen Nafarroako Murillo el Fruto herrira. 700 biztanleko herria Tafallatik hegoekialdera dago, ez zaio asko falta Aragoikin muga egiteko.

Murillo el Frutokoa da Ayesa. Lanean hasi eta pare bat urtera euskara ikasten hasi zen, 20 bat

urterekin. Eusko Jaurlaritzak argitaratutako *Bakarka* metodoa erabili zuen. Bakarkako lana zuen, bai; herrian inork ez daki euskaraz eta ETB1 ez da ikusten. Autoan eta etxean Euskadi Irratia entzuten zuen.

Bakarka metodoarekin gora eta behera zebilen, baina udaratan Olazabalekin gaztelaniaz hitz egiten segitzen zuen. Hirugarren ikasturtea egiten ari zela hasi zen Olazabalekin. Harremanak gaztelaniaz jarraitzen zuen hala ere, baina Olazabal zestoarra izan. Hau da, %80ak baino gehiagok euskaraz dakien Gipuzkoako herrikoa. Hara-ko bisitak hasi ziren eta Ayesak dioen moduan, *Kutsidazu bidea Ixabel* deskubritu zuen neska-lagunaren baserriko familiarekin. Murilloarrak ez zien ulertzen, hika egiten zutelako, azkar eta hitzak janez... “Nagorek asko laguntzen zidan egoera horietan”.

Zestoa ezagutu zuen, euskara poliki-poliki ikasten ari zen... baina noiz hasi ziren elkarren artean euskaraz hitz egiten? Ayesak: “Elkarrekin hasi eta gero”. Olazabalek: “Nik esango nuke Zestoara bizitzera etorri zinenean [duela hiru urte] hasi ginela euskaraz”. “Baina telefonoz egunero hitz egiten genuen. Orduan euskaraz egingo genuen ba”. “Telefonoz euskaraz? Aurrez aurre bai,



baina telefonoz ez, zailagoa da”. Olazabalek uste du oso lotuta daudela Zestoan bizitzea eta beraien arteko harremana euskaraz izatea gaur egun. “Guk ez dugu inoiz planteatu zein hizkuntzatan hitz egin behar dugun. Gaztelaniaz ezagutu genuen elkar eta nik esango nuke Zestoara etorritakoan aldatu dugula hizkuntza. Koadrila guztiz euskalduna daukat, herrian edozein tokitan egin dezakezu euskaraz. Alfonso etorri zenean nire lagunek bazekiten euskara ikasten ari zela eta euskaraz egiten zioten. Kanean euskaraz egiten genuen, eta beraz, etxean ere bai. Zer gertatuko zen Zestoan beharrean Murillo el Fruton biziko bagina? Euskaraz egingo al genuke?”. Mutil-lagunari begira esan du: “Zure herrian ez zenuen lortuko orain hemen lortu duzun euskara maila eta pazientziarik izango al genuen euskara maila kaxkarragoarekin euskaraz egiteko?”. Ayesak ez dio kontrarik egin, baina gauza bat argi du: “Nagorek esan du ez dugula planteatu zein hizkuntzatan izan gure arteko harremana, baina ni euskara ikasten hasi nintzen nafarra naizelako eta euskalduna izanda euskara jakin nahi nuelako”.

Xantxia linguistikoa

Murilloarrak oso gutxitan jotzen du gaztelaniara. Ez omen dauka senti-

menduak-eta espresatzeko zailtasunik: “Nagoreri hitz egiteko zailtasunik? Ez, berarekin da errazena, konfiantza daukat, okerrago moldatzen naiz lanean eta urduri jartzen naizenean”. Hala al da, Nagore? “Bai, bai, esango nuke berak nik baino gehiago eusten diola euskarari. Zerbait konplikatu esan behar diodanean, azkar bukatzeko batzuetan erdarara jotzen dut, baina berak ez”. Pazientzia handia dauka Ayesak ikusita nola izaten dituzten haserrealdiak: Olazabalek lehen kolpean esatekoak esaten ditu eta ondoren Ayesak, nola euskaraz gaztelaniaz bezain ondo ez den moldatzen, bi aldiz pentsatzen du esan behar duena. Hori xantxia linguistikoa dela esan diogu eta barre egin du. Olazabalek beste xantxia linguistikoa bat kontatu digu: “Batzuetan esaten diot: ‘Esan nizun ba atzo halako eta halako!’ eta berak: ‘A, ez nizun ulertu’”.

Ayesa ederki moldatzen da euskaraz, baina hala ere galdetu diogu Olazabali ea zuzentzen dion: “Grammatikarik ez diot zuzentzen, nahikoa ikasi zuen *Bakarka*arekin! Entonazioarekin ibiltzen da gaizki, erdarazko entonazioa erabiltzen du euskaraz. Hori zuzentzen diot. Egia da baita ere azkar, gutxi ahoskatuta eta hitzak janez hitz egiten duela”. “Baina hitzak zuek ere jaten dituzue!”, “Bai, baina zuk hitz klabeak jaten dituzu!”.

Elkarrizketa bukatzen ari garela izen-abizenak galdetu dizkiegu. Alfonsok azkar-azkar esan dizkigu bereak, eta kazetariak: “Ayesa Tamarín?” “Ez! Marín” eta Olazabalek: “Ikusten?”.

Bai, kazetariak ez dio ulertu. Alabaina, seinale ona da, “eta” esan beharrean “ta” erabiltzen du. Zestoartzen ari da.

Bego Macias eta Natxo Urkijo

«Sekula ez dugu hitzartu zein hizkuntzatan egin behar dugun»

Laudioarrak (Araba) dira biak. Natxo Urkijo (1960) Lanbide Heziketako irakaslea da eta Bego Macias (1966) AEK-ko irakaslea eta arduraduna. 1970eko hamarkadan, orain 17.000 biztanle inguru dituen herrian, biztanleriaren %1ak baino ez zekien euskara. Orain, herritarren erdiak baino gehiagok daki.



Maciasek eta Urkijok hurrenez hurren 17 eta 24 urte zituztela ezagutu zuten elkar. Gaztelaniaz hasi zuten harremana. Urkijok ordurako euskaraz egiten zuen, 13-14 urterekin lagun baten konpainiarekin hasi baitzen euskara ikasten. Irakasle titulua ateratzea zuten helburu. Euskararen munduan murgildu nahian, delineatzaile izanda, euskal filologia ikasten hasi zen Urkijo. UEU ezagutu zuen eta Hizkuntzalaritza Saileko arduraduna izan zen. Maciasek giro euskaldunean zebilen Urkijo ezagutu zuen: “Txillardegi eta horrelakoekin zuten harremana. Afariak eta bazkariak egiten zituzten eta ni joaten nintzenez isilik egoten nintzen; dena ulertzen nuen, baina ez nintzen hitz egitera ausartzen. Afari-bazkari haiek flaxa ziren niretzat”.

Eta noiz hasi zineten bion artean euskaraz? Galdera zaila edo aldrebesa bota duenaren sentsazioa du kazetariak. Hala dio Urkijok: “Lehen bi-hiru urteetan erdaraz egiten genuen, baina ez gara kontu-

ratu noiz aldatu genuen eta nola izan zen. Ez genuen erabaki bat hartu, ez dugu sekula hitzartu zein hizkuntzatan egin behar dugun. Orain ez daukagu erdaraz ezagutu gineneko oroimenik”. Maciasek gogoan duenez, berak euskara maila lortu arte aritu ziren gaztelaniaz, “nik askatasuna lortu arte, beldurra kendu arte”. Denbora gutxian asko ikasi zuen Maciasek, mutil-lagunarekin mintzapraktika egiten zuen, nahiz eta hasieran lotsatu. Urkijok emazteari hala bota dio: “Ustiatu ninduzun orduan, zure onerako”.

Euskararako bide horretan zailtasun berezirik izan al duten galdetu diegu. Urkijok: “Nik maila neukan eta eskua botatzen nion”. Eta segituan Maciasek: “Deformazio profesionala zeukan eta ondo zetorkidan. Baina komunikatzeko gaitasuna bagenuen”. Maciasek aitortu digu senarrak asko zuzendu izan diola, baina zuzentzaile ona

dela: “Batuetan hasten gara ergatiboarekin eta esaten dit: ‘nork nik’ eta nik: ‘~~k~~ esan dut’ eta berak ‘ez, ez duzu esan’... eta horrela ibiltzen gara”. Urkijori lagun batek esan zion berarekin euskaraz egitera ez zela ausartzen zuzenduko zionaren beldurrez: “Disgustua izan zen hori entzutea, etxekoei zuzentzen diet, baina kanpokoei ez”.

Bere adineko oso gutxi elkarren artean euskaraz

egiten duen herrian eguneroko harremana euskaraz du bikoteak. 17 eta 13 urteko alabek ere “identifikatuta” dituzte. Lagunak alabekin gaztelaniaz aritzea ohikoa da, baina haien gurasoek telefona hartzen badute lagunak beti euskaraz egiten diete.

Eta zergatik euskaraz? Urkijo serio jarri da: “Norbere buruarekin kontsekuente izan dadila. Kanpotik begiratzeko gaitasuna izan behar dugu kontura gaitezen zertan ari garen. Lagun batek kontatu zidan nola ez zitzaion gustatu Hendaiara joan eta zerbitzariak euskaraz ez egitea. Eta hemen zer gertatzen da? Hura gu bezain euskalduna izango zen, baina frantsesez egiten zuen. Euskalduna banaiz euskaraz egin behar dut. Agian oso atzerakoa naiz, baina nire baitan ez da ulertzen euskalduna izan eta euskaraz ez egitea”. Teoriatik praktikara doa Macias: “Euskara ikasi dugu erabili ahal izateko”. ■

Babeslea: IVAP

“IVAPen misioa da Euskadiko Herri Administrazioetako pertsonak eta antolakuntza hobetzea, administrazio eraginkorragoa, efizientegoa eta elebiduna lortzeko asmoarekin, eta zerbitzu publikoko zenbait balio komun oinarri hartuta. Horretarako, honako hauek egingo ditu:



- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileei etengabeko prestakuntza eman eta langileak hautatu.
- Euskararen erabilera administrazioan normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak eta lege- eta administrazio-erloto euskarazko terminologia.
- Hizkuntzari, legegari eta antolamenduari buruzko aholkularitza, eta antolaketa eta kudeaketaren inguruko ikerkuntza.”

